

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Produktu edo enpresa bat aurrera eramateko momentuan, oso garrantzitsua da beste enpresa batzuekin aliantzak sortzea eta elkarrekin guk lortu nahi dugun negozioa hobetzea. Hori kontuan izanda, hainbat kolaborazio egitea eta aliantzak sortzea erabaki dugu. Beraz, atal honetan, gure produktua hobetzeko bururatu eta balio izango zaizkigun bost aliantzak azalduko ditugu.

Aurrera eraman nahi dugun ideietako bat Euskal Herriko banku batekin egin nahi dugun kolaborazioa da, hain zuzen, Laboral Kutxarekin. Autonomia Erkidegoan, hainbat banku desberdinekin kolaboratzeko aukera dugu, baina guri Laboral Kutxa aproposena iruditu zaigu, izan ere, beharrezkoak iruditzen zaizkigun baldintza gehienak betetzen ditu. Gure enpresa osatzen dugun bost lagunak banku honetakoak gara eta oso tratu ona jaso dugunez erabaki dugu Laboral Kutxari eskaintzea bururatu zaigun ideia. Gainera, interes baxuenak eta eskaintza interesgarriena egin diguten bankua da eta ezbeharren bat gertatu ez gero gure enpresa aseguratzeaz arduratuko da.



Bankuari eta Foru Aldundiari mailegu bat eskatuko diogu gure enpresa berri hau aurrera eramateko aukera izan dezagun. Denbora bat igaro ondoren, utzitako diru kopurua itzuliko diogu.

Banku honekin aliantza sortuko bagenu, hainbat alderditan oso lagungarria izango litzaiguke. Adibidez, kostuak murrizterako orduan, Laboralek babestuko gaituelako. Honek esan nahi duena, makinak bankuari saldu nahi dizkiogula da. Bankuak hau onartzeko, irabazi batzuk lortuko lituzke: banku horretakoak ez diren bezeroek makina erabiltzean 20 zentimo ordainduko dituzte. Eta Laboralek irabazitakoaren %30a eramango luke.

Honekin batera, Laboral Kutxa bankuak bezero berriak irabaziko ditu. Jendeak makina dohain erabili nahiko duenez, bankuz aldatzera bultzatuko dituelako.

Gure taldean enpresekin negozioak eraman, materiala garraiatu, produktuaren diseinua egin eta kontuak kontrolatuko dituen pertsonak ditugu, baina, makina egiteko behako dugun materiala lortzeko enpresa batekin kontaktuan jarri

beharko dugu. Honetarako, prezio eta kalitate hoberena eskainiko digun enpresa bat kontratatuko dugu.

Hortaz aparte, lortutako materialarekin makina muntatu digun beste enpresa batekin negoziatuko dugu. Enpresa hau ere zehazki zein izango den adostea falta zaigu, baina, aukeratzeko orduan, gauzak guk esan eta diseinatu bezala egingo dituen bat nahi dugu, hau da, inongo aldakuntzarik gabe eta dena gure gustura. Argi dugun gauza bakarra, kontratatuko dugun enpresa gure lurraldekoa izango dela da, atzerrian merkeagoa izan daitekeen arren, hemengo enpresei eta gure lurraldeko ekonomiari lagun diezaiozun.

Materiala enpresa batetik bestera garraiatzeaz arduratuko den pertsona gure taldeko bat izango da, baina, makina muntatu ondoren herri bakoitzera banatzeaz makina sortu duen enpresa bera arduratuko da.

Aurreko guztia bete ondoren, makina herriko kaleetan instalatuko duen beste enpresa bat kontratatuko dugu. Gure taldeko baten familiar bat gauza hauetan aritzen da, beraz, harekin harremanetan jarriko gara ea lanaren negoziazioa adosteko.

Azkenik, makinetan dagoen dirua kontrolatzen arituko den enpresa bat beharko dugu. Hau da, billete edo txanponak sartu edo atera beharko balira, hortaz arduratuko dena.

Zorte handia dugu lanean aritzeko momentuan ofizina, biltegi edo hala nolako beste toki bat aurkitzeko. Izan ere, gure herrian hilabetean 30€gatik toki eroso bat eskeintzen duen enpresa bat dugu, UGGASA enpresa hain zuzen. Beraz, haiekin jarriko gara harremanetan lanean aritzeko tokia izateko.

Guretzat garrantzitsua izango da enpresa guzti hauetako hornitzaileekin lanean ibiltzea eta beraiekin etengabe kontaktuan egotea; izan ere, dena kontrolpean izan nahi dugu inork ez gaitzan ez gu ez bezeroak engainatu.

